# LABek adierazten du gaur-gaurkoz ezinbestekoak izaten jarraitzen dutela maiatzaren 14ko eta ekainaren 4ko grebek, Udalhitzeko eta udaletako negoziazioetan eragiteko




**Ostiralean EUDELek Udalhitzeko mahaian berrikuntza txiki batzuk aurkeztu bazituen ere, oraindik ez dira guztiz nahikoa.**

Ostiralean, apirilaren 24an, berriro bildu zen Udalhitz Akordioa berritzeko mahai negoziatzailea. EUDELekin izandako bileran, negoziazio mahaiaren blokeo egoeragatik duen kezka adierazi zuen LABek. Era berean, borroka dinamika batean dagoela adierazi zuen, eta aurrerapenik egon ezean mobilizazioak indartuko dituela.

Ostiraleko mahaian berrikuntza txiki bat egon zen: lanpostuen balorazioak egiteko eta erosahalmena berreskuratzen hasteko, aurrekontuei lotutako funts baten proposamena. Hala ere, funts horren zenbatekoa zein izango den eta langileok erosahalmenaren galeran zenbateko portzentajea berreskuratzeko prest dauden ez dute adierazi. Alderdi politikoek titularrak ematen dituzte, baina ez dute zehaztasunetan sartu nahi, eta ez dituzte formula juridiko eta ekonomikoak aztertu. Beste behin ere, edukiak ez dira nahikoak izan, eta gainera, ez dituzte idatziz jaso.

Udaletako zerbitzuen kudeaketa ere izan zen hizpide. Gai honi dagokionez, euskararen atalean bezala, bi proposamen ezberdin daude: bata EAJ-PSErena eta bestea EH Bildurena. EH Bilduk, pribatizazioei lotutako azterketaz gain, besteek ez bezala, publifikazioak egitea proposatzen du, eta bide horretan, klausula sozialen bitartez, azpikontratatutako langileak administrazio publikoko langileen soldatekin parekatzea eta lan-baldintzak homologatzen joatea planteatzen du. LABek adierazi du bigarren proposamen honekin bat egiten duela, eta ezinbestean idatziz jaso behar dela langileak subrogatuak izango direla.

Bestalde, negoziazio mahaian hitz egin diren neurriak aplikatzeko sei urteko egutegi bat proposatu zuten. LABek kontraproposamen bat bidali zuen, aldarrikapen guztiak jasotzen dituzten neurrien edukiei buruzko zehaztapenak gehituz eta indarraldia nabarmen laburtuz.

Udalhitzeko mahaiaren hurrengo bileran, maiatzaren 7an, batetik, gaur landutako gaiak zein aurretik landutakoak idatziz aurkeztu beharko dituzte; eta bestetik, behin-behinekotasuna murrizteko neurriak, lanaldia, hautaketa-probak, lanpostuen hornidura eta gazteberritze plana jorratuko dira. Idatziz aurkezten duten horretan ikusiko du LABek adostasunetarako eta langileen aldarrikapenei erantzuteko nolako borondate politikoa duten, eta elementu gehiago izango ditugu balorazio sakonagoa egiteko.

**LABen ustez, mobilizazioek eta lanuzteek egindako presioaren ondorioz eragiten ari da sindikatua. Hortaz, hilaren 23an lanuztearekin bat egin zuten eta udaletxeen aurrean egindako 75 elkarretaratzeetan parte hartu zuten pertsonen konpromisoa balioan jarri nahi du.**

Nolanahi ere, LABek adierazten du gaur-gaurkoz alderdi politikoek edukiak zehaztu gabe jarraitzen dutela, eta mahaian jarritakoak ez direla nahikoak; hortaz, ezinbestekoa izango da hurrengo urrats gisa maiatzaren 14rako eta ekainaren 4rako deitutadauden bi grebak lantzea.

# LAB señala que, a día de hoy, siguen siendo imprescindibles las huelgas del 14 de mayo y 4 de junio para incidir en las negociaciones de Udalhitz y de los ayuntamientos




**A pesar de que el viernes EUDEL presentó en la mesa de Udalhitz algunas pequeñas novedades, estas siguen siendo totalmente insuficientes.**

El viernes, 24 de abril, se volvió a reunir la mesa negociadora para renovar el Acuerdo Udalhitz. En la reunión mantenida con EUDEL, LAB manifestó su preocupación por la situación de bloqueo de la mesa negociadora. Asimismo, señaló que está en una dinámica de lucha y que reforzará las movilizaciones si no hay avances.

En la mesa del viernes hubo una pequeña novedad: la propuesta de un fondo presupuestario para realizar valoraciones de puestos de trabajo y empezar a recuperar el poder adquisitivo perdido. Sin embargo, no indican cuál será el importe de ese fondo ni el porcentaje que están dispuestos a negociar para la recuperación del poder adquisitivo. Los partidos políticos ofrecen titulares, pero no quieren entrar en detalles y no han analizado las fórmulas jurídicas y económicas para llevarlo a cabo. Una vez más, los contenidos fueron insuficientes y, además, no los han recogido por escrito.

En la mesa también se trató la gestión de los servicios de los ayuntamientos. En cuanto a este tema, al igual que en el apartado de euskera, existen dos propuestas diferentes: una de PNV-PSE y otra de EH Bildu. EH Bildu, además del análisis relativo a las privatizaciones, propone, a diferencia del resto, llevar a cabo publificaciones y, en ese sentido, mediante cláusulas sociales, ir equiparando salarialmente y homologando las condiciones laborales del personal subcontratado con las del personal público. LAB manifestó que está de acuerdo con esta segunda propuesta y que necesariamente debe recogerse por escrito que el personal será subrogado.

Por otro lado, se propuso un calendario de seis años para aplicar las medidas abordadas en la mesa de negociación. LAB envió una contrapropuesta, añadiendo precisiones sobre el contenido de las medidas que recogen todas las reivindicaciones de las personas trabajadoras y acortando considerablemente su vigencia.

En la próxima reunión de la mesa de Udalhitz, el 7 de mayo, por un lado, deberán presentar por escrito tanto los temas tratados hoy como los abordados anteriormente; y, por otro lado, se tratarán las medidas para reducir la temporalidad, la jornada laboral, las pruebas de selección, la provisión de puestos de trabajo y los planes de rejuvenecimiento de la plantilla. En el documento que presenten por escrito LAB verá qué voluntad política existe para alcanzar acuerdos y responder a las reivindicaciones de las personas trabajadoras, y contará con más elementos para realizar una valoración más profunda.

**LAB considera que, como consecuencia de la presión ejercida mediante la movilización y el paro, está incidiendo en la negociación. Por ello, quiere poner en valor el compromiso de las personas trabajadoras que el pasado día 23 se sumaron al paro y participaron en las 75 concentraciones ante los ayuntamientos.**

En cualquier caso, LAB manifiesta que, a día de hoy, los partidos políticos siguen sin concretar los contenidos y que los planteamientos realizados en la mesa son insuficientes, por lo que será imprescindible trabajar las dos huelgas convocadas para los días 14 de mayo y 4 de junio..